

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila ikastetxe publikoetan kamerak instalatzen hasi da, hezkuntza komunitatearen onarpenik gabe eta aurrez inolako informaziorik helarazi gabe

Inbertsioa hezkuntza kalitatea hobetuko duten bestelako baliabide pertsonaletan eta azpiegiturretan egin beharrean, langileen kontrolerako diren eta ikasleen intimitatea urratuko duten gailuetan egin duela salatu du LABek. Ikastetxeei kamerak ez konektatzeko eta ez erabiltzeko deia luzatu nahi die LABek.

LABek jakin duenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila EAEko hainbat ikastetxe publikotako ikasgeletan kamerak jartzen hasi da, edo horiek jartzeko saiakera egin du. Gailu interaktiboen berriztatzea helburu, ikastetxeetan ikasgela digital berriak jartzeko asmoa du sailak. Ikasgela berri horiek monitore interaktiboa, mahai gaineko ordenagailua, web kamera, hari gabeko mikrofono pertsonala eta gelarako mikrofonoa izango lituzkete. Kamerak ikasgeletako sabaian ezarri nahi dituzte, eta, funtzionatu ahal izateko, mahai gaineko ordenagailura konektatu beharko lirateke.

Gailu interaktibo berri horien instalazioa aitzakitzat hartuta, Hezkuntza Saila ikastetxeetako zuzendaritzei xantaia egiten dabilela salatu nahi du LABek. Hainbat ikastetxetako zuzendaritza taldeei adierazi die kamerei uko eginez gero ez dutela gela digitaleko gainontzeko ekipamendurik jasoko.

Hezkuntza Sailak alde bakarrez hartutako erabaki berri honek, beste behin ere, noraeza eta urduritasuna eragin ditu. Hezkuntza komunitatea osatzen duten langile, familia eta ikasleak aurrez informatu gabe eta euren onarpenik gabe instalatu nahi izan dituzte kamerak. Ikastetxeetan kamerak jartzeko saiakera egin badute ere, langileei ez zaie inolako irizpide edo informaziorik eman horien erabileraren inguruan, ezta duten helburuaren inguruan ere.

LABen iritziz, helburu pedagogikorik gabeko tresnak izateaz gain, langileen kontrolerako dira aipatutako kamerak, hezkuntza komunitatearen baimenik gabe eta iritzia kontuan hartu gabe ezarri nahi dituztenak. Era berean, ikasleen babesa eta intimitatea arriskuan jartzen dituzte, eta beraien pribatutasunaren aurka jo.

Teknologia ikasleengan pedagogikoki duten eraginaz hausnartzeko beharra mahaigaineratu nahi du LABek. Hezkuntza Saila teknologia digitalak neurrigabe bultzatzen ari da, irakasleak ikastetxeetan digitalizazioari neurria hartu nahian dabilzan bitartean; teknologia pedagogiara moldatu beharrean, pedagogia teknologiara moldatzera behartuz.

Hainbat ikastetxetako klaustroek uko egin diote kamera horiek jartzeari, eskola kontseiluan edo klaustroan hala erabakita. LABek jarrera horiek babesten ditu, eta gainontzeko ikastetxeak berdina egitera animatu nahi ditu. Dagoeneko instalatuta dauden tokietan kamera horiek ez konektatzera eta ez erabiltzera deitzen du.

Lehentasunezkoak, baliabideak

LABek uste du aproposagoa dela inbertsioa hezkuntza kalitatea hobetuko duten bestelako baliabide pertsonaletan eta azpiegiturretan egitea, eta ez kameretan. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan egun azpifinantziatua dagoen hezkuntza publikoaren gutxieneko inbertsioak Barne Produktu Gordinaren %6koa izan beharko lukeela eskatzen du, Europako batezbestekoaren parekoa.

Era berean, pasa den ikasturtean hezkuntzaren kalitatea hobetuko duten hitzarmenak sinatu baziren ere, mobilizazio zein grebetan langileek erakutsitako konpromiso eta indarrari esker, gaur-gaurkoz zenbait baliabide zein ordu murrizketa aplikatzeke daude. Hala ere, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak hezkuntzaren kalitateaz hitz egiten jarraitzen du.

Beraz, Hezkuntza Sailari eta Jaurlaritzari orain arteko jarrerak baztertzeko exijitzeaz gain, LABek bie eskatzen die ikastetxeei informazio zehatza helarazteko eta hezkuntza komunitatea aintzat hartzeko. Hezkuntza Sailaren aldebakarreko erabakien aurrean, LABek lanean jarraituko du gai bakoitza dagokion mahaian negoziatu dadin.